

ZABALIK

TXIPI ORMAETXEA
http://goiena.net/iritzia/



Jose Luis

Alvarez Enparantza, Txillardegik. Zer esan azken egunetan Txillardegiren gainean esan ez denik? Gauza asko esan eta idatzi dira, ondo esanak eta ondo idatziak ia denak. Beste kontu batzuk aitatu ditut nik.

Donostiatik urruntxo geratu arren, Debagoienarekin izan zuen hartu-eman, izan zuenez, Txillardegik. Beharbada denek ez dute jakingo amaren familiak Oñatiko jatorria zuela. Eta Oñati ez zuen saltzeko, bihotzean zeroan. Arantzazu ere maite zuen, eta hango bakea baliatu zuen zenbait lan idazteko. Bestalde, idazlanetan erabili zuen gaitzizenetako bat *Usako* izan zen, eta ez dago oñatiarrik hori zer den ez dakienik.

Bergararekin ere bazuen lotura. Kontu jakina da Monzon bergararrarekin izan zuen adiskidetasuna. UNEDen ere hainbatetan aritu zen hizlari eta irakasle.

Arrasate ere ezin aitatu gabe utzi. Ustekabe polita eta hunkigarria gertatu zait oihal berearen kontua: Arrasateko *Txomin* handiaren gorpua estali zuen harexek estali du orain Txillardegirena, 25 urtean gordea izan duena.

Eta ibilbidetxo hau amaitzeko, Aramaiorekin lotutako zerbaitekin kontatuko dut. 1999ko urriaren 17an lagun batzuek Jose Luis gonbidatu genuen Aramaiora. Hasteko, ibilaldia Santi Kurtzen kobara (Jose Luis beranduago etorri zen eta ez zuen kobara joaterik izan); gero, bazkaria Iturrieta sagardotegian; eta bazkalorduan eta bazkalostean "huntza eta hartaz" berba egin genuen, baina bereziki denok aurretik irakurria genuen Jose Luisen *Putzu* eleberriaz. Han izan ginena ez dugu ahazteko egun hura!

Eta hiri zer esan, Jose Luis maitea? Ba, azkarregi joan hiezela. Prozesu politiko berria abiatu baino ez denean utzi gaituk. Luze joko dik, eta dena beharko diagu. Hire laguntza ere bai. Hagoen lekutik, emaguk indarra hire betiko ametsa lor dezagun. Eskerrik asko. Alimaleko zortea izan duk hi ezagutzea!

USTEAK USTE

XABIER URTZELAI | xurtelai@goiena.com

Youtube pastillendako terapia

Aspaldiko saio bat ikusi dut egunotan, 1992an Antena3 telebista kateak emititzen zuen *La Clave* saioretako baten kopia utzi didate-eta. Jose Luis Balbinek aurkeztuta, tertulia ederrak egiten zituzten orduan, eta nik esku artean izan dudana Ernesto Che Guevararen gainekoa zen; zelan bilakatu zen mediku eta gerrillari argentinarra garai eta borroka baten ikono. Ikustekoa zer-nolako pertsonaia batu zituzten mahaiaren bueltan, tartean Alberto Korda, *Che*-ren erretratu ezaguna atera zuen argazkilaria kubatarra, eta *Che* bera atxilotu zuen militar boliviarra, Gary Prado. 150 minutuko saioa; Youtubeko bost minutuko pastillak tragatzera ohitu garen sasoi honetarako terapia.

KALE INKESTA

Urte berrirako zenituen asmoak betetzen zabilta?



JULIAN OZERINJAUREGI
IGORRE

"Nik urte osoan zehar izaten ditut asmoak eta ideiak. Urtarrilean ez da ezer aldatzen. Buruari eragiten ibiltzen naiz denbora osoan".



IDOIA MUÑOZ
ARRASATE

"Gabonetan hartutako kiloak kentzea proposatu diot neure buruari, eta dietan nago. Paseatzera ere joan beharko nuke, baina...".



MARIA AYLLON
ARRASATE

"Urte hasieran ez ditut proposamen zehatzak egiten. Hori baino gehiago, eskatu egiten dut: zorientsu izatea, ondo pasatzea...".



JULIO VELASCO
ARRASATE

"Ez diot garrantzirik ematen urte berria hasteari eta proposamenik ere ez diot egiten nire buruari, berehala ahazten zaizkidalako".

HANDIK ETA HEMENDIK

35 urteko ikurrina dugu etxean

Urko Apaolaza
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Etxean badugu ikurrina zahar bat. Amak egin zuen. Oihal zatiak erosi zituen, han berdea, hemen gorria... eta ahalik eta txukunen josi zituen elkarrekin. Orduan debekatua zegoen ikurrina erakustea, 1976a zen. Baina sumatzen zen laster legalizatuko zutela. Amak espresuki egin zuen egun horretarako. Eta egun hura 1977ko urtarrilaren 19an iritsi zen.

Bezperan "alkateen taldea" izenez ezagutzen zen mugimenduko hainbat udalburu Madrilera abiatu ziren Martin Villa Gobernazio ministroarekin hitz egitera (bai, bai, *atención, atención Martin Villa es un cabron-on-on...* estribillo ezagunaren protagonistak). Han zeuden Jose Luis Elkoro, Imanol Murua eta beste zenbait. Klean sekulako presioa zegoen eta Martin Villak ez zuen beste aukerarik izan ikurrina "ez pertsegitzea" baino, hori bai, *piperpoto*-aren ondoan jarrita. Baimenak Hego Euskal Herriko lau

lurraldeetarako balio zuen, 35 urte geroago San Ferminetako irudi hauek zer pentsatua ematen badute ere.

Alkate horien artean Ignacio Iruin zegoen, Hernaniko alkatea (Iñigo Iruin abokatua ezagunaren aita). Estimatu handiko pertsona da Iruin gure herrian, bai musika bandan egindako lanagatik eta baita alkate gisa hartutako konpromisoagatik ere. Berari egokitu zitzaion, plaza bete jende zela, udaletxeko balkoian lehen aldiz ikurrina jartzea.

[...]
Duela bi urte Jose Mari Martinez kazetariak elkarrizketa egin zion *Hernani* urtekarirako eta hara nola gogoratzen dituen Iruinek egun horiek:

"Martin Villak bazekien legalizazioa lehenago edo beranduago egin beharra zegoela. Juridikoki ez zirudien oso zaila, hori bai, herriko ikurraren eta espainolaren ondoan egon behar zuen. Imaginatuko duzun bezala, baldintza hori ez zitzaigun batere gustatu, baina onartu behar izan genuen geure helburua lortzeko: 1977ko urtarrilaren 19an, arratsaldeko zazpitan, ikurrina Euskadiko udaletxe guztietan zintzilikatzea ikur ofizial moduan".

35 urte geroago, alkate talde horrek egindakoa gogorazari dute Etxarri-Aranatzen, han bildu baitziren egun batzuk lehenago, 1977ko urtarrilaren 16an ordezkari mordoa, eta hantxe sinatu baitzuten dokumentu garrantzitsu bat eskatuz presoak kartzelatik ateratzea, autodeterminazio eskubidea, eta euskaraz bizi ahal izatea, besteak beste. Eta ikurrinaren legalizazioa, jakina.

Gure amonak kontatu zidan behin, urtero, Santu Guztien Egunaren ingurumarian, aitona eta lagun batzuek ikurrina bat jartzen zutela ezkutuan Hernaniko hilerrian, han fusilatu zituztenen omenez, honako leloa idatzirik zuela: *Arerio maltzurak zuek bazterrean utzi arren, eusko gogoan toki berezia daukazu*. Elvira Zipitriarena omen da esaldia.

Etxean urtetik urtera jarri izan dugu amak egindako ikurrina balkoitik eskegita: Aberri Egunean, herriko festetan eta abar. Seguruenik ikurrinak jadanik ez du lehengo aldarrikapen kutsu bera, baina ez legoke gaizki gogoratzea zenbat kosta zen hilerriko zoko ilunetik udaletxeko balkoiraino eramatea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Aregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza